

"OSO ABERASGARRIA DA PROGRAMA BERRIAK ERABILTZEN IKASTEA"



Kontxi Prado [Elgoibar Ikastola | Lehen Hezkuntza 2]

Kontxi Prado, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak sustatutako Kosmodisea lehiaketako Ikono Planetan Lehen Hezkuntzako 2. kategorian lehen geratu den Elgoibar Ikastolako taldearen arduraduna da. Azaldu duenez, lidergo-postua poztasun handiz hartu dute ikasleek. *"Egia esan, lan handia egin dute bigarren fasea aurrera ateratzeko."*

- Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?
- *Zailtasun handiena gaiaren antolamendu eta planifikazioan izan dugu. Pentsatu genuen guztia zazpi iruditan islatzea oso zaila izan zen.*
- 2010-2011 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- *Bereziki, teknologia berriei ematen zaien garrantzia. Oso aberasgarria da programa berriak erabiltzen ikastea. Taldean lan egitea ere bai.*
- Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?
- *Zailtasun handiena denbora eza da, gure ikastolak proiektu askotan hartzen baitu parte. Hori dela eta, ikasleek eskolaz kanpoko ordutegian ere lan egin dute.*
- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2010-2011 edizioko azken etapari?
- *Bigarren planeta irabazteak motibazioa eragin die ikasleei. Jada hasi gara azken etapa planifikatzen. Lan ona aurkeztea nahiko genuke.*